Bestelako Xedapenak

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

2331

EBAZPENA, 2011ko martxoaren 14koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Garapena Sustatzeko Lankidetza Fondoaren kargurako programetarako laguntzak lortzeko Asociación Medicus Mundi Álava-Araba kreditatzen duena. Adierazitako laguntzak apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuak arautzen ditu.

Adierazitako Dekretuaren 10. artikuluak ezartzen du programetarako dirulaguntza lortzeko nahitaezkoa dela 12., 13., 14., 15., eta 16.1 artikuluetan ezarritako baldintzak eta ahalmenak kreditatzeko aldeko eta indarreko ebazpena ematea. Kreditatzeko formularioa Dekretu arautzailearen eranskinean dago.

11. artikuluak ezartzen du Garapen Lankidetzarako Zuzendariak ebatziko duela kreditatze-eskaera hori, eta 36 hilabeteko indarraldia izango duela argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

2010eko azaroaren 30ean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara bidalitako idazkiaren bitartez, Garapena Sustatzeko Lankidetza Fondoaren kargurako programetarako laguntzak lortzeko kreditatze-eskaera egin zuen Asociación Medicus Mundi Álava-Arabak.

Horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren (GLSF) kargurako programetarako laguntzak lortzeko Asociación Medicus Mundi Álava-Araba kreditatzea. 36 hilabeteko indarraldiarekin, ebazpen hau EHAAn argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Denboraldi horretan, Asociación Medicus Mundi Álava-Arabak aukera izango du GLSFren kargurako programetarako laguntzak lortzeko deialdietara zuzenean aurkezteko, deialdi bakoitzean kreditatzeko premiarik izan gabe.

Bigarrena.– Kreditatze-indarraldian zehar, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak aukera izango du egokitzat jotzen dituen eguneratzeak eta/edo argibideak eskatzeko Asociación Medicus Mundi Álava-Arabari, erakundearen administrazio-betebeharrak eta ahalmenak betetzeari dagokionez. Ikusten bada erakundeak ez duela betetzen eskatutako baldintza eta ahalmen horietakoren bat, Garapenerako Lankidetza-

Otras Disposiciones

AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

2331

RESOLUCIÓN de 14 de marzo de 2011, de la Directora de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, por la que se acredita a la Asociación Medicus Mundi Álava-Araba para concurrir a las ayudas a programas con cargo al Fondo de Cooperación al Desarrollo, reguladas por el Decreto 57/2007, de 3 de abril.

El artículo 10 del citado Decreto establece que, para tener acceso a la subvención de programas, es necesaria una resolución favorable y vigente de acreditación de los requisitos y capacidades establecidas en los artículos 12, 13, 14, 15 y 16.1. El formulario de acreditación consta en el anexo del Decreto regulador.

Asimismo el artículo 11 del mismo Decreto establece que será el Director/a de Cooperación al Desarrollo quien resuelva dicha solicitud de acreditación, teniendo una vigencia temporal de 36 meses a partir de su publicación.

La Asociación Medicus Mundi Álava-Araba, mediante escrito dirigido a esta Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo con fecha 30 de noviembre de 2010, formuló una solicitud de acreditación para concurrir a las ayudas a programas con cargo al Fondo de Cooperación al Desarrollo.

En vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Acreditar a la Asociación Medicus Mundi Álava-Araba para concurrir a las ayudas a programas con cargo al FOCAD por un periodo de vigencia de 36 meses a partir de la publicación en el BOPV de la presente Resolución. Durante dicho período de tiempo, la Asociación Medicus Mundi Álava-Araba podrá optar directamente a las convocatorias de ayudas a programas con cargo al FOCAD, sin necesidad de acreditarse en cada una de ellas.

Segundo.– La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo podrá pedir durante el periodo de vigencia de la acreditación las actualizaciones y/o aclaraciones que estime oportunas sobre el cumplimiento de los requisitos administrativos y capacidades de la Asociación Medicus Mundi Álava-Araba. Si se advirtiera que ésta dejara de cumplir alguno de dichos requisitos y capacidades exigidas, la Agencia Vasca de

ren Euskal Agentziak ofizioz hasiera eman ahal izango dio kreditatze hori baliogabetzeko espedienteari.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 14a.

Garapenerako Lankidetzaren
Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

Cooperación para el Desarrollo podrá iniciar de oficio un expediente destinado a revocar dicha acreditación.

Tercero.– Que contra la presente Resolución, se podrá interponer recurso de alzada ante el presidente o presidenta de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de marzo de 2011.

La Directora de la Agencia Vasca
de Cooperación para el Desarrollo,
MARTA ARES GODOY.